

AITAREN BIHOTZAREKIN

Salletar Otoitza San Joxeri

San Joxe: hezitzaile eredugarria Mariaren alboan, salletarrok zure aitaren bihotzera jotzen dugu Salletar Familia guztiaren Zaindari eta Babestaile gisa aitortuz.

Aita bihotzekoa:

lagun iezaguzu gure gizatasuna fedez bizitzen eta gure konpromisoa ernaltzen duten hazien eroaleak izaten Salletar Hezkuntza Misioan.

Samurtasunaren Aita:

lagun iezaguzu aita baten irmotasunez eta ama baten samurtasunez jarduten, estimu handian izanez beti gure misioaren erdigunean direnak, Jesusekin zeuk eta Mariak egiten jakin izan zenuten bezala.

Aita esanekoa:

lagun iezaguzu Jainkoaren nahia aurkitzen eta denetan gure "gurtzen dut orotan" bizitzen, gure "Fiat" fideltasunean, Maria zure emazteak Gizakundearen adierazpenean bezala eta zure Jesus Semeak Getsemanin bezala.

Aita errukian aberatsa:

irakats iezaguzu nola jaso besteak aita baten besarkadan, eta beren bihotzak ukitzen gure eskuetan legokeen on guztia hel dakien, bereziki zaurgarrienei: deusgabeei, txiroei, erbesteratuei, nahigabetuei, behartsuei, hiltorian direnei, azkenei eta gaztetxoenei, zure Semearen lehenetsiak.

Aita ausardi sortzailearena:

lagun iezaguzu pasiozko leialtasun eta sormenez zailtasunak gainditzen, Jesusenganako bidean aurkitzen ditugun nahigabeak maitatzen.


Aita lantegiko isiltasunean:

irakats iezaguzu esker oneko izaten gure lanagatik eta ez dutenekin solidario izaten.

Presentzia isileko Aita:

lagun iezaguzu ororen erdigunea ez izaten eta gure ikasleen gurasoekin lankidetzan jarduten beren giza eta kristau hezkuntzan.

San Joxe, gure egoitza eta elkartea zure eskuetan jartzen ditugu. Lagun iezaguzu Jainkoaren Erreinuarekiko egitasmoaren zerbitzuan egoten. Irakats iezaguzu maitatzen eta jasotako dohainekin esker oneko izaten. Zuk bezala, San Joxe, fedearen begiez begira dezagula beti, eta aitaren bihotzez jardun. Amen.



(Anai Rafa Matas - Anai Joxe Ertzibengoak euskaratua)